

## 8.7 UDALEKU IREKIAK

Espediente kodea:

### Zer da? Zertarako da?

Haurrentzako udaleku programa bat da, Hernaniko Udalak antolatua. Hernaniko herrian erroldatuta dauden edota herriko ikastetxeetan ikasten duten 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat da (HH1 eta LH 4 bitarteko mailakoentzat).

Udaleku hauen helburua da haurrekin eta haurrentzat aisialdi hezitzailea eta erakargarria eskaintzea, euskararen erabilera eta genero parekidetasuna ardatz dituen programazio baten bidez.

**Noiz?** Uztailean. Data zehatzak urtero jakinaraziko dira.

**Ordutegia:** astelehenetik-ostiralera 9:30-13:00

### Nork eska dezake?

Haurren guraso edo tutoreek.

### Izena emateko epea

Urtero zehaztuko da.

### Izena ematea

- **Internet bidez:** <https://web.hernani.eus/gazteria/>
- **Aurrez-aurre:** Haur eta Gazteria Arloan (Aristizabal, 7), astelehenetik ostiralera 16:00etatik 19:00etara

### Zenbat kostatzen da?

Prezio arrunta urtero zehazten da (100€ inguru). Hobariak daude.

Matrikularen kobraketa ekainean egiten da, izena emateko orrian jarritako kontu korrontetik.

-Zerbitzua antolatzen duenak eteten badu zerbitzua, horretarako arrazoiak daudelako, eman gabeko zerbitzuari dagokion matrikula-zatia itzuli egingo da.

### Onarpena

Izen-emate epean egindako matrikulak onartuko dira.

### Itxaron zerrenda

Plaza gabe geratu direnekin itxaron zerrenda osatuko da.

### Baja ematea

Baja eskaerak idatziz aurkeztu behar dira (dagokion [eskabide normalizatua](#), behar bezala beteta eta sinatuta), eta horiek onetsi edo ezetsi egingo dira. Non aurkeztu : hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua.

-Maiatzaren 31 arte, ez da matrikula kobratuko.

-Baja noiz eman den kontuan hartuko da matrikula kobratzerako orduan:

- Ekainaren 1etik 15 arte eman bada baja, matrikularen %10 kobratuko da.
- Ekainaren 16tik aurrera eman bada baja, matrikula osoa kobratuko da.

-Baja istripuagatik edo gaixotasunagatik izan bada, ez da matrikula kobratuko. Derrigorrezkoa izango da istripu edo gaixotasun-bajaren ziurtagiria aurkeztea. Aurkeztea.



Hernaniko  
Udala





## Hobariak

Hobaria eskatzeko, jarri harremanetan hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuarekin.

- Tel. 943 33 70 00
- Helbide elektronikoa: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)

## Informazio, taldeak eta programazioa

Udalekuak hasi aurretik gurasoekin bilerak antolatzen dira, udalekuen inguruko informazio, programazio, talde eta gainerako xehetasunen berri emateko. Posta elektronikoko bidez jasotzen da bilera horren berri.

Ekaineko lehen hamabostaldian egiten da bilera.

## Tramitzatzeko arduraren duen udal saila

Haur, Nerabe eta Gazteria arloa. Aristizabal, 7.

Informazio gehiago: 943 337041

WhatsApp 605715607 e-postaz: [gazteria@hernani.eus](mailto:gazteria@hernani.eus)

**HERNANIKO UDALA, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua**  
Gudartien plaza 1 - 20120 | TEL. 943 337 000 - FAXA 943 552 696  
e-posta: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus) | [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)



Hernaniko  
Udala

euskara  
ari du

